

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2021eko zaborra biltzen duen zerbitzu publikoarengatik tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea eta zergabilketarako aldia

Zaborra biltzen duen zerbitzu publikoarengatik tasaren errolda, 2021ekoa, egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun balioudun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunek aipatutakoaren gaineko dokumentazioa udal idazkaritzan izango dute eskuragarri, jendea hartzeko orduetan.

Era berean, zerga ondoko epeetan kobratuko dela iragartzen da:

A) Araututako epea: 2021eko urriaren 15etik 2021eko abenduaren 15era.

B) Betearazpen epea: 2021eko abenduaren 16tik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ozaeta, 2021eko irailaren 13a

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA